

BIARRAREN AUNDITASUNA

Biarra gizonaren borondate eta buruaren egitea edo frutua da. Eta egite orretan gauza aundi eta eder bat geratzen edo gordetzen da beti: gizonaren pentsamentua eta indarra. Ortik dator bere aunditasuna. "Biarra —Baudin, Strasburgo Unibersidadeko jakitun aundiak diñonez— gizona berbera da, eta gizonaren aunditasun guztia dauka berez". Gizona eta biarra iñoiz aldendu ezin leikezan gauzak dira.

Sozialistak ez dabe olan uste. Eurentzat aldrebez da: gizonaren aunditasuna biarretik dator, eta bakar-bakarrik biarretik. Eleizeak beste era batera diño: gizona dala, eta ez beste ezer, biarrari bere aunditasuna emoten deusana. Biarraren aunditasun iturria gizonagan daño, eta berangandik aldendu eziñean. Alan diño Leon XIII. nak.

Ori ikusita beste au argi dago:

a) Biarra eta kapitula ezin leikez malla batean ipiñi. Biarra ganetik dago, gizona materiaren ganetik dañon legez.

b) Biar guztietan gizonaren aunditasuna begaratu eta errespetatu bear da batez be: bere gorputza eta bere animea, gizonaren izateak eskatzen deuskun lez. Biar bat emotean ezin geinke itxi alde batera gizona. Orregaitik:

1.º Biar gogorregirik ez da agindu bear. Urteak, personak eta indarrak gogoan euki bear dira. Andreak eta gizonak ez dira bardin. Umeak batez bere kontu aundiagaz artu bear dira. One-



ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

VIII URTEA - N.º 80

GARAGARRILLA (7) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959



tzaz Leon XIII. nak (Rerum Novarum) eta Pio XI. nak (Quadragesimo Anno) aolan diño: "Umeeri eta andreeri ez iakue agindu bear iñoiz eurentzat ez dan biarrik".

2.º Danari emon bear iakue bear daben deskantzua: "Biarraren luzetasuna eta gogortasuna ikusi ondoren ipini bear da deskantzu au". (Rerum Novarum).

3.º Biar guztietan balore aundiagoak garbi gorde bear dira, au da, bear oneek ez doazala animaren kaltegarritzat. Leon XIII. nak: "Biar lerregia, arimako indarrak il eta zapaltzen daben biarrak, justizi eta gizadiaren kontra dagoz".

Ara or ba gure biarraren aunditasuna eta edertasuna. Jaunak alan nai ta, danok egin bear dogu biar. Batzuek esku-biarrak, beste batzuk buru-biarrak, baña danak zeozer al dogun eran eta neurrian.

Jesusek berak emonda daukagu erakutsi ederra. Bere jaungoiko-eskuak be ondo ezagutu eben biarraren gogortasuna, "Biarra gizonaren aunditasun eta edertasunerako eginda dago", diño Pio XI. nak. "Biarraren bitartez bakarrik aurkitzen eta beraganatzen dau gizonak aunditasuna", diño Etienne Barnek.

Biargiñaren emaztea

Gaurko sartaldeko emakumeak ez dira lengoak, Jaungoikoari eskerrak. Gaurko emakumea lengoa baiño obetoago ikusten da. Baiña gaurko emakumeak antziñekoak baiño zer-egin gatxagoa ta aundiagoa dauko. Biar-toki asko ditu; biar-toki asko ta ugariak. Baiña biartokirik onenatarikoa, mamintsuenatarikoa biargiñen artean idoroten dogun zokondotxua dala esango neuke. Zokondotxu onen buruz zeozer esan gura deusuet gaur, zueri, euskal-erriko emakume maiteori.

1.º *Emakumearen lanak gizatasuna aberasten dau:*

Madalen artega ta larri dabil. Zer dala-ta?



Azterketeen egunak urreratzen yakozalako ez uste izan Madalen amabost urteko neska zatia danik; ogeta zortzi negu gorri darabil bizkarrean; ezkonduta dago; seme-alabatsua ditu; biak dabilz beti amaren amantaletik dilizka. Batzuek janalak jaten dagozan bitartean, Madalen kalean zear doa, galtzarpe liburu bi josita dabezala. Zer dala-ta esaten tzen? Oraintsu il yakon senarraren opor jabetu gura dabelako.

Madalentxu asko dira gure errietan; Madalentxu asko etxe-zuloetan; Madalentxu asko fabriketan. Madalentxu onexek doguz Euzkerriko larrosarik usaintsu ta ederrenak. Egutibitez gaurko gizarte onetan Madalentxu biargin ta zintzoak!

2.º *Emazteagan aurkitzen dau senarrak aduen toki:*

Askotan ikusi izan ei dira, naiz trenean maiz automobilletan, lantegitik etxerantz doazen gizonak. Geienetan, nekatuta, aurpegi illun, eadore bage doaz. Gizon oneeri eten barik edo dagie barruan etxe-zaletasunak. Onetariko gizonak, iñork usteko ez leukan aña senar zintzo dira; ez dira bertanberakoak, ez. Eurak bi biotz bat dabil. Zelan igarri, gizon onek aurpegi zigorak izan arren, barrutik zintzoak dirala? Ona emen bide bat: etzara zu ikusi kargutu gizon orreen aurpegi ligorra ezte. Añon jardun dagoan emaztea ikusi ondoren zelan aldatuten dan? Irribarre dariola panteetan dira; eta emaztea semetxuen batekin etxerri bada, laztan goxo bat emoten deutso batekorian. Gerotxuago, euren etxera bidea ondoren, alaitxu ikusten doguz, bakoitzari gertaturiko problematuak kontetan. Emazte zintzoak, etxe barruan biar asko izan arren euki arren, senarraren aurrian edozein tokitan panteuteko alegiñak egingo dauz, poz txiki bat emon dayon.

3.º *Zer izango litzake zure etxea emazte baten*

"Bizardun" gizon batek esandakoa da: "emaztea oian daukat gaixorik. Baiña... ez berriz Jaungoikoak beste mundura eroan! Emazte bizitza guztian gaixorik eukitea ezta ez gaur onena; baiña dana dala, bapeza baiño obetoagoa."

Baltzak eta zuriak

Mundua beti mundua, eta orain be bai: len lez zoroa eta zitala. Congo, Angola, Argelia eta, azkenengoz, Estados Unidos, dira egi onen agerpen diranak. Baltzak dirala eta zuriak dirala, au edo bestea dala, iñoiz ezin alkar artu. Aita baten semeak ezin sekula ondo aitu.

Amaita alegin egin dabe ba Norteamerikako obispo, abade, fraile eta irugarrendarrak razismoaren sustrai zikin ori betiko itotzeko, baña ia dana alperrik, bermeo-bedar sapa onek beti emon dauz landare barriak. "Askatasun autobus" edo dala dalako orrek emon dau zer esan, eta zer pentsatu ugari, maiatzaren 24'tik ona.



Idoyagatar Xabier

bestirik ezin, indiabari zenbat ur bota bear dan esateko"...

Amabako etxea, edurraz egindako etxea! Emaztearen lana, sukalde edo eskatz inguruko lana da. Berak daki jatekoa zelan egin bear dan; berak daki inork baiño obetoago, umeak zelan asi ta ezi bear diran; berak daki senarrak iroasten dauan diruaren indarra noraño elduten dan. Sarri askotan, matematikoak baiño be listoagoak izaten dira gure emazteak; zenbat bidar esan bear izaten dabe: "Bi ta bi, bost". Ez aiatu, "emakumea, emakumea da; gizona, gizona".

4.º Emakumea, etxetik kampa:

Egia, emakumearentzako tokirik berebizikoena etxea da. Baiña ez daigun aztu emakumeak gauz on asko eroan daikela gizartera. Gaurko gizartea, zarata askokoa ta aurrerapide askokoa izan arren, otza, guztiz otza da; ez dauka biotz-berotasunik. Plazatan, fabriketan, kaleetan gente asko dabil, egia; baiña, "bakoitza bere bidetik". Kale ertzeen baten umetxuen bat jausita ikusten ba'da, emakumeen batek altzau bearko dau; eta emakumeen batek altzaten ezpadau, an egon bearko dau agoa zabalik. Jaungoikoak gauz andiak egin dauz; gauz ondi oneen tartean sartuko treuke nik emakumearen izakia. Berezkoa da emakumearengan xamurra, biguña, maitekorrta ta konprenziño andikoa izatea.

Ona emen, bada, emakumeak etxetik kanpora eroan bear dauan aberastasuna. Emon, emakume, munduari xamurtasuna, alkar-maitasuna, bakea.

enango orritik dator

Gure Euskalerrriak be aurrerapen aundiak egin dauz joandako urte batzuetan. Gure fabriketako tximini baltzak zerura begira dagoz, berari mosaka. Eta euren ondoan millaka euskal-gizon euren buru eta borondate guztia euren biarrean ipinita. Onexengandik urten bear dau gaur edo biar gure arriaren aunditasuna. Eleizaren erakutsiari jaramon egiten badentsee, orduantxe esan all izango dogu benetan dala aundia gure Euskalerrria, eta gure fabriketako keia usain ederreko intxentsu biurtuko da, eta gure eguncroko biaroparia, Abel santuarena lez, ondo ikusia eta atsegingarri izango iako gure Jaungoikoari.

Antonio Zubizarreta

Egia esan, asko idatzi edo eskribidu da, baña gertaera edo jasoera orrek beste pentsamentu bat dakar danon gogora: benetako kristiñau pentsamentuetatik urrun gabiltzala oraindiño ogeigarren gizaldian. Baltzak dirala ta besteko barik sasira bota bear ete dira ba personak? Lapurrak eta zikiñak dirala? Eta zer nai dogu ba beti aldentuta euki badoguz? Edukaziñoa eta patxadea

Aita Imanol-ek Irlanda-tik

ADAM ETA EVA-REN ETXEA

Bai. Adam eta Eva-ren etxean egon naiz. Egia difiotsuet. Adam eta Eva-ren etxean. Antxe egon naiz. Neure begiakaz ikusi dot. Neure eskuakaz ikutu. Adam eta Eva-ren etxea! Etxe veneragarria; Gente asko joaten da bertara. Ni neu-bere, bertara joan nintzan —eroan ninduen— artez artez, Dublin-eko portura elduta laster.

SAN FLORO

Amar egun tardatu genduan Bilbao-tik Dublin-era. Egun larregi. San Floro-k ez eban euki tardantza orren errurik baiña. San Floro, kargako barku polit bat da, barri barria, millaz tonelada-koa, Sanandere-ko portuan matrikulatua. Orduko 18 bat kilometro egiten ditu; eta zuzen doanean, egun bi t'erdi tardetan dau Bilbao-tik Inghlaterra-ra. Amazazpi laguneko tripulaziñoa daroa: sei ofizial eta amaika subalternu. Danak gazteak, danak leberak, danak humore onekoak. Euren artean, ezin eitekezan falta euskaldunak. Lenengo makiñistea Sestaotarra, bigarrena Usansolotarra, irugarrena Getariarra. Kapitana, Asturiarra da; Bilbao-n bizi da baiña, Bilbaotar bategaz ezkondata. Subalternuen artean, lau dira Bizkaitarrak: Busturi-ko bi, Kortezubi-ko bat, Lekeitio-ko beste bat.

EUSKALDUN MARIÑOAK

Gurako neuke jakin, zenbat euskaldun dabil-tzan navegetan. Geienak, Bizkaitarrak dira, Bermeo, Gernika ta Lekeitio aldekoak. Gazte gazte-tarik itxi dabe euren erria. Batzuk Terranova-ko makaillozaleetan dabilta. Beste batzuk, naziño-ko barku merkanteetan. Beste asko —al dabe-nak— erbesteko itxasuntzietan. Bizibide gogorra alde guztietarik. Dempora gitxi pasetan dabe euren errian, eta ia beti bizi dira itxasoan, etxetik eta eleizatik urrun. Geienak ez dabe bear dan beste diru irabazten. Geienak ez dagoz pozik euren bizimoduaz. Zorionez, zerbait obatu da aspaldion euren egokera espirituala, Itxas Aposto-laduari eskerrak. Gero ta indar geiago artzen asi

da apostoladu ori Euskalerrian. Baiña, nire u-tez, apostoladu orrek oso gitxi egingo dau itxastarren alde, eleizgizonak bakarrik lan egin badabe, eta mariñoen familiak eurak, eskuak bituta, bape egin barik geratuten badira.

BAIONA-N

Olako gauzen gaiñean sarritan verba egin genduan San Floro-ko jantokian, batez-bere Baiona-ko portuan sei egun luze igaro genduzan bitartean. Aste atan, zoritxarrez, portuko kargatuak leleak gitxi zirean, eta txitean pitean largetan ez tsoen lanari euriagaitik. Azkenean, kargatuak kuen barkua; baiña bitartean, itxasoa zantzen egin jakun, eta beste egun bi urten eziniñk genduzan gaiñean, Baiona-ko portuak barra guztiz txartauko-ta. Dana gorabeera, ondo aprobetxatu genduzan demporea. Goizean goizean igoten neban marzeza emoten katedralera, eta bein joan nintzen Bokale-ko eleizara. Bokale (frantsesez Boucaux) erri bat da, Baiona-ko portuaren bokan jarria.

IRLANDA-RANTZ

Gero ta gero-bere, urten genduan Baiona-tik eta artu genduan Irlanda-razko errumbua. Itxaso bare egon zan asikeran; baiña laster asi zan gaiztotuten, arrotuten, eta Irlanda-ko kostara genduzan ez eban amor emon. Itxasaldi zantzen benetan euki genduan, eta ni erdi mareatuta ibiltzen nintzan demporea guztian. Egund bi t'erdi buruan, itxasoa ostera-bere baretu zan, eta genduzan aldean Dublin-eko portuan sartu gintzazan, apirilaren 27-an, Sierra Leona-ren Askatasun Egunean.

DUBLIN-EN

Eldu naiz Irlanda-ra. Allegatu naiz neure vellearen akabura. Asmo bat bakarrik dakat: ingulsa ikasi, ainbat ariñen ikasi, naitanaiez ikasi gero Freetown-en Bermeo-ko arraintzaleeri lagunduteko. Gogoz beterik nago. Ain zuzen-bere, Sierra Leona-ren Independentzia Egunean bertan eldu naiz, Freetown-eko baltzak euren historial

egunik aundiena ospatuten dagozan momentuan. Patua neure alde dago urrean.

Igon eben barrura aduanako morroiak. Saludatu eusten sekulako kariñuaz. Ofrezidu eusten euren laguntziño osoa. Bete eustezan beingo baten formalidade guztiak. Galdetu eusten zein lekutara joan gura neban, eta Osborne kopatxu bana geugaz batera edanda gero, urten eben barkutik lengo kariñu ta ontasunagaz. Ogei minutu geroago, taxi bat lotu zan barkuaren aurrean. Neure billa etorren txoferra. Sentimentu aundiagaz agur egin neutsen San Floro-ko laguneri, eta alendu nintzan eurakandik Dublin-eko kaleen barrura. Amar minutu geroago.


—Eldu gara, Jauna, Adam eta Eva-ren etxera— esan eustan txoferrak.

—Nora esan dozu? —erantzun neutsan nik, guztiz arrituta, neure ingles mordoilloan.

—Adam eta Eva-ren etxera. Entzun dauan lez, Jauna. Sartu beite barrura, eta nik baiño obeto frailleak explikatuko deutsoe etxe onen historia.

Sartu nintzan etxean. Frailleak neure begira egozan. Etxeko seme batelez errezibidu ninduen, eta egun bi eurakaz ezin obeto igaro nituan. Unc orretan, argitasun guztiakaz enteratu nintzan Adam eta Eva-ren etxecaren historiaz. Baiña bein astirik ez daukoda lez, urren kontatuko deusuet dana, zabal zabal eta zertzelada guztiakaz. Agur.

Gormanston-en



3^ogarren orritik dator

BALTZAK ETA ZURIAK

sartu bear dira eta ez dot uste ori danik erarik onena orretarako. Gauzak beste era batera ikusten ez badoguz, aurrerantzean be izango doguz ge-

rrak eta ezbearrak. Munduaren erremedio bakkarra karidadea da gaur be, eta oriikasi nai ez badogu gaur lez jarraituko dogu.

“Kollara bat eztiagaz miila barrika biñagregaz baño euli geiago arrapatzen da” diño Salesko Prantzisko Santuak, eta errazoa eztaukanik ezin iñork esan.

Montgomeryko baltz areek txarto egingo eben bear bada. Baña askeaz be txarrago egin eben Washingtonetik Nueva Orleansera joan ziran nazitar areek, Euren asmoak gaitzagoak eta okerragoak ziran eta.

Ezta-baida onsek gauza bat erakutsi deusku, bear bada ez genkian gauza bat: U.S.A.an oraindiño eldu bako gizon asko dagoala, igarotako gizaldian indioekin izan ebezen garraen eragillea bizi dala, paganismoak badauzala oraindiño bere jarraitzalleak.

Eskandalo aundia munduko naziñorik aundienak emen dabena. Aurrerantzean ezin arritu afrikatarragaitik edozer esanda be. Ez daukaugu Afrikara joan bearrik.

Antzeko asmoak ebiltzan Hitlerek be. Amerikako bere seme bariak be gogor dagoz judeuen kontra. Antza munduko zoritxar guztiak eurgandik yatorkuz. Oitura txar bat gudanatu dogu: errua besterri botatea beti, geuk jatorrizko pekaturik ez bagendu lez.

Dana dala, ezbazan buruko miñ txikiak igarro Kennedy leudakariak ganora bako gauza onegaitik. Zer esango eutsan berak Rusiako jaunari? Norberen etxea sutan itxita ausoa konpontzen joan?

Meditaziño apur bat bear dogu danok. Ebanjelio aurrean ipinita egin daigun. On egingo deusku.

Pedro Maria Uribe



Gora i mutilla!..



Yasako mutil asko dago oraindiño

Bai, biba i mutilla! Gora ta aupa i!... Gaur beintzat merezidu dozak gure txaloak-eta. Onelako asko bageunkez gure Euskal-Erri onetan...

Geure errezibidore bake santuan jarrita genozan baten, neure ezagun batek esanda daukat. Ezta-bada gozo ta xamurrean sartuta gabiltzala gogoratu yakon eta bertan esan eunstan.

Domeka arratzaldea zan. Denpora ederra egiten eban benetan eta jentea bete-betean ebillen kalean: amak beren umetxoak karroan artuta ioiazan; zarrak, makillea lagun ebela, aruntz ta onuntz ebiltzan; ezkon-gaiak edo nobioak besoz-beso eskutatuten ziran etxe birtartetan; umeak, alkar eginda, olgeuten eben danak batera. Lantzean bein ainbeste neskatil eta mutil be ikusten ziran barrez eta zarata batean, danak moltzoan nazteuta. Esan barik be, euren arteko betiko gauzatxuak kritikatzan eta atonduten leiña eutseen. Orraitxio ez izango gauza erreza saltza orretan arrazola nok daukon igartea: ez orixe! Mutillak ederto jantzita egozan; neskak be, dotore euren erara: ganorabako jantzirik etzan agiri beintzat. Baiña oneetatik batek beren luma bako txoritsuak erakusteko gogoak eukala-edo emoten eban: batean oiñetaoak igurtzi, bestean bere ule zapareari eragin, urrengoan gonak gerrian altsau, luzegiak eukoazalakoan-ta...

Eta arrituta gelditu nintzan, esan eunstan lagunak, moltzoan egoan mutil aretatik batek neska areri eskutik kurioso-kurioso kolpetzean; eta ondo begiratuaz diñotso leun-leun: "No me gusta lo que has hecho. Por favor baja un poco ese vestido, pues tienes un poco

subido; y en adelante se más recatada"...

Eta oiñ neuk amaituko dot nire lagun ipuintxo au:

Ia seguru nago mutil au danak aurrean artuko ebela ordun. Kasurik ez eutson iñoik egin ez da urretik be... Baiña ni seguru nago zuet danok, irakurleok, neuk lez pentsatuko dozuela eta zeuen barruan neugaz batera auxe diñozuela: Ni ondiño ez naz iñoiz izan kapaz onako berba zuzenak bateri esateko; oiñarte lotseak gura dabena egin daust... Kementsutxu nago banintza zikiran... Mutil onen ernaitasuna baneuke, gaurko Euskal-Erria sendoagoa ta zindoagoa egongo litzake gaur.

Mutil, eupa ta biba i! Eta beste ilakoak be gora! Bearbada ire ejenplu ederra ausnartuko eban oiñgo bere biotz biginean neskatil arek... eta guk be indar galanta artu dogu ire egia on orretan!

Ementxe ikusten dogu gure artean oindiño badauzela bear diranlako mutillak eta guk us-te doguzan baiño geiago dirala onaren atetik dabizenak. Ez dot esan nai ori egiteko lekurik onena kale bete-bete bat dala eta kualidade guztiak daukozala gazteak egin dauen bierrak!... Baiña bai ejenplu bizi ona emon dabela or! Eta gu be onelako batzuk emon bearrean aurkituten garala eskotan. Ez euki ba bildurrik iñoiz, mutillak!

Eta zu neskatillea, noiz arte ibilliko ete zara zure zaia laburrekaz zurika? Ia ba, neskatillak izan zaiteze beti zuen buruen jabe! Errezpetatu daiguzan gure buruak, gero egun baten izan gaitzean familiko ama on batzuk eta onetaxaxe altsau daigun gure Euskal-Erri maitea!

Anai Yon Zabalgo

Seme bi ta... naiko?

Badira seme bi daukezen familiak. Eurak diñoenez geiago eukitea estropezu bat baiño besterik ez litzake izango. Senarrari, aberatsa izan eta bere familiko amabigarren semea izan arren, seme bitik gora izatea askotxu deritzaio. Emazteak be, kontzientziaren "surru-murrua" itoten alegiñak egin ondoren, —"Geiagorik ez dogu bear! —diño—; bost, zortzi..., larregi da! Nork atondu ainbeste ume? Buf! Ori baiño apur bat nasaitxuago bizi gura dogu. Bi, ta kitxu!"

Zer deritxazu?

Nere iritzia:

Gauz onetzaz, ezin esan izango deusut gauza barririk. Dana dala famili onen egokerea, gaztea bada batez be, lotsagarria ta negargarria da. Kontzientziaren "surru-murrua" itoten aleginduten danak, badauko barruan "zeozertxu"; emakume onek be badauko "zeozertxu". Eta "zeozertxu" au daben bitartean, ezin izango dau zoriontsu bizi; eta zoriontsu ez izate onek zikin-pekatzuko bizimodua ostikopetu ta Jaungoikozko bizimodua bezarkatuten ez dau lagunduko. Baiña argitu dagigun apur bat problematxu au.

Seme-alaben jaiotz eguna gitxituteko motibu edo errezo askotara jo izanda; eta geienetan, gizatasuna gitxituteko ekarri izan diran motibu edo errozi oneek benetakoak izango litzakez, ume-jaiotzaren sustraia kenduko baltzake. Ezkontzak ekarri dabezan atsegiñak bezarkatzen dira, atsekabeak bide-ertzera jaurtiaz. Atsegiñ goxoagaitik ezin erabilli. Eskontzako Sakramentua; ez eta ez!

Baiña ez or dana amaitu: sarritan ziñistu da Eleiza-Amak eztitu dabela eskongaien biotzean seme-alaba asko izateko gogua; txarto esana! Eleizak ez dau iñoiz esan, "Al dozuezan semerik geienak ekarri!"; Eleizak esan dabena auxe da: "Eskonduengandik pekatua urrunduteko erremediorik berebizikoena, seme-alaba asko izatea da". Ziñismendun gizon edo emakumeak, bere biotza pekatuz josi baiño len,

atsekabez josi bear dau. Gañera, ez dakizu Kristok zer diñoskun Ebangelioan: "Txoriak ez dabe azirik ereiten" zeruko Aitak bizi eragiten deutsee".


Munduko izakia larregituko dala? Ona emen sustraibako itaunkerea; ziñisbakoen intaunerea. Mundura datozen izaki guztien arimak Jaungoikoak egiñak dira; alan dirausku Kristiñau-fedeak. Nork daki, bada, Jaungoikoak baiño obeto zenbatentzako tokia dagoan mundu onetan? Onegaz ez dot esan gura Goikoa' ren arduratsuhari "eskua luzatu" bear eztanik, ez; ez uste izan, ostera, Jaungoikoak "esku zikiñak" estutu gura dabezanik.

Egia: gizona ez da aingerua; eta ez yagoko aingeru-begiekaz Jaungoikoa ikustea. Baiña, aberea be ezta; eta ez yagoko ondo abereari yagokozan griña zital eta zikinpean bizitea.

Ona emen esandogunetik argitaratu geinena: seme-alaba gitxi izateko motibu dauken eskonduentzat bide bat bakarrik dago, "GARBITASUN" bidea. Ekarkaitz unedetan erabilli lei Eskontzako Sakramentuak emoten dabezan eskubideak. Baiña... atsekabea ta mortifikaziñoa eskonduen artean bear bearrekoak dirala ez aztu!

Ez da gauza erreza; komprendidu egin bear da. Ez da ostera ezifnezko gauza, ez. Bi, lau, zortzi... seme izatea ez da lelengo pentsau bear dana; lelengo pekatua birrindu, baztertu; gero gerokoa.





1. ISABEL II.—Isabel II Ingalterra'ko Erregina ta anglikano-eleizaren buru nagusia, Erroman izan da, gure Aita Santuari ikustaldi bat egiten. Erromako abitanteak mutututa geratu ei dira Erreginaek erakutsiten ebazan zidarrezko ta urre-gorritzko arriakaz. Baiña, orrek ez deusku ardura. Aita Santua Ingalterrarako Erreginaegaz izan eban jardunak orrexek ardura deusku. Zer esango eutsen alkarrerri? Dana dala, katolikoak eta anglikanoak asi gara alkarregaz berba egiten... eta oba inoiz ixilduten ez bagara!

2. GARY COOPER.—Il da. Zineko izar ospetsu ori, GARY COOPER, il da, betiko. Maizta'k 13'n. Jazo orreri gure periodikoak ez deustoe jaramon berezirik egin. Bere bizitzan, barriz, danok jakin bear genduzan Gary Cooper'en gora-berak, jakin nondik ebillen eta zetan ebillen. Orain, ostera, betiko joan jakunean, il danean, ia ez deuskue esan ezer: il dala, besterik ez. Eriotza bizitzaren jarraia dala? Il-aginean bardinaak garala danok? Bai. Baiña Gary Cooper zelan il da ba? "Jaungoikoaren guraria egin gura dot. Eriotzak ez deust billurrik emoten. Prest nago beste mundura joateko...", orrek izan dira bere azkeneko berbak. Eta, eztozue pentsaten G. Cooper ez egoala zineko barriketatan ibiltzeko barriro?

3. KENNEDY ETA KRUSTXEV.—Vienako urian, Bagilla'k 3'n, Kennedy eta Krustxev arpegiz-arpegi ikusi dira. Berba egiteko batu ziran Vienara: ala benetako bakearen billa ala ganorabako itxurakeriak egitera, (batasuna ta munduko bakea gura dabezelaokan). Eztakigu. Baiña, negargarria de mundua gizon biren esketan egotea, negargarria gaurko gizonok gi-

zon bi orren bildurrez erabiltea. Eztogu aaztu bear inoiz: bakea ez deusku emongo Kennedy'k, ez Krustxev'ek; bakea norberak lortu bear dau, norberarentzat eta besteentzat.

4. NESKAZAARRAK. — Españian, 800.000 neskazar ditugu, au da, 800.000 neska, 30 urte-tik gorakoak eta oraindik ezkonduakoak. Probintzien artean, Galizia da aurrena, neskazaargeien daukona; eta urien artean, Donosti. Zergaitik orrenbeste neskazaar? Zio bat auxe izan leike: gaurko emakumeak dirua eurengandik irebazten asi dira, ta eskontzarako bear dan beste diru batuteko, urteak bear dira.

5. SANTA MARIA BERTILLA.—Maizta'k 11'n, Jaunaren Igokunde egunean, gure Aita Santuak altaretan jarri eban Sor Maria Bertilla, monja ixilla inoiz ez entzunikoa. Patatak zurituten be ez ekiala diñoskue, ta alan da be, santa egin da. Zorionak, Santa Maria! Brigitte Bardot, Sofia Loren, Soraya... eta beste asko be, emakumeak dira zure antzera... baiña...

Pello-Mari

7'garren orritik dator

Ezta ezinezko gauzea: badira eskondu baino len urte betean neba-arreba legez bizitzeko erabagia artu ta gorde dabenak; ta au gitxi balitz lez, urte au amaitu ondoren emazte garbia Jaungoikoak eroan eban beste mundura. Zer deritxazu zuk emakume? Zinismen sendoa daukonak, edozer!

Ta azkenez: ez gara lelengo izakiak mundu onetara ekarri doguzanak; gure gurasoak, gu mundu onetara, etziran bildurtu ez oskildu atsekabeen aurrean. Bizia da munduko gazarrik andi ta onena.

(munduko bakea gura dabezelaokan). Ezaukigu.

